

TOLOSALDEKO HERRI ALDIZKARIA

Galtzaundi

Eskualdea: Sendi Ekintzan belaunaldi aldaketa >>> AHTri ez esateko ekintzak

Gizakiari begira: Familia bizitza mitologia klasikoaren bidez **Kultura:** Txolarre kabitik plazara

Kirol saltsa: Iñaki Garmendia zaldi lasterketari orendaindarrari elkarrizketa

ELKARRIZKETA: Iñaki Agirrezabal aktorea



*Gizonak ez daude
ixilik egoteko*



LASKORAIN IKASTOLA

Izen emate epea: otsailaren 2tik 13ra



**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA
ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net tolosa@laskola.net 943 697 127



herrian hazi eta hezi



Zilar kalea 4
20271 IRURA
Fax 943 696241
Telf: 943 69 43 74
irura@ikastola.net



Euskaldunak. herritarrak.
irekiak. eleaniztunak.
aktiboak. autonomoak.
lagunartekoak.
konprometituak. hiztunak.
Euskal Herriari lotuak...

MATRIKULAZIO EPEA:
otsailaren 2tik otsailaren 13ra



Ergoien, 5
20270 ANOETA
Fax 943 653627
Telf: 943 65 46 13
943 65 29 32
anoeta@ikastola.net





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeitia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Begoña Aristi, Anton Izagimre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarteak, Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzailak: Dihana Sanchez,
Juankar Arregi.

Idazkaria: Edume Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alizo, Amezketza, Anoeta, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Otxoa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

Aldizkari honek Gipuzkoako
Foru Aldundaren laguntza
jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosaldeko Udalen eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

IRITZIAREN LEIHOA

- Unai Igartua: Hiretzat
- Joxe Agustin Arrieta: Beste begirada bat.

NORMALIZAZIO ATALA

- Osakidetzako azken lan-deialdiak euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratu ditu.

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Ibarako Sendi Ekintzan, belaunaldien arteko zubia eraikitzen.
- AHTri ez esateko ekintzak antolatu ditu elkarlanak

4-5 orrialdeak

6. orrialdea

10-11 orrialdeak

Galtzaundi 295

2009ko otsailaren 6a

Iritziaren Leihoa: Unai Igartua eta Joxe Agustin Arrieta4-5
Eskualdeko albistekak:

Sendi Ekintza: Belaunaldien arteko zubia eraikitzen10
AHT gelditu elkarlanaren prentsaurrekoa11
Gizakiari begira: Familia bitzta mitologia klasikoaren bidez12
Kultura: Txolarre irratia kabitik plazara16-17
Kirol Saltsa: Iñaki Garmendia zaldi lasterketaria18-19

ERREPORTAIA

Gizonen Elkargunea, berdintasunaren alde egiteko



7-9 orrialdeak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena

ELKARRIZKETA

“Horrela, aurten 1.728 animalia kontu antzezlanarekin hasi gara testu literario batean oinarrituta, baina inprobisazioari toki handia eginez. Animalario Universal del Profesor Revillod liburuan oinarrituta dago lana. Hiru paneletan zatitutako hamabi animalien marrazkiak daude, azpian bakoitzaren izena jartzen duelarik. Tximuaren burua, elefantearen gorputza eta txerriaren isatsa duen animalia sor liteke”.

- Iñaki Agirrezabal Aktorea

13-15. orrialdea



HIRETZAT

UNAI IGARTUA

Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kidea

TLagun bat, edo maite dugun pertsona bat era askotara gal daiteke, distantziaz urrunduta, bata bestearekin haserretuta, bizitzak bide ezberdinak hartuta, ulertu gabeko maitasunak behartuta, injustizi batek bahituta, ideiek aldentuta, edo Mari jainkosak eramanda...

Baina, zer den maite duzun pertsona bat galtzea, ezta? Batez ere heriotzak eramaten duenean. Momentuan ez dakizu gaizki sentitzen zaren edo gaizki sentitzera behartuta zauden, ez dakizu triste sentitu, edo triste zaudela adierazi, ez dakizu barnetik negar egin edo kanporantz negar egin.

Uste dut badakidala lagun maitatuak galtzea zer den, maitatzen duenari beti iristen baitzaio momentu hori. Era

guztietara galdu ditut lagunak, distantziarekin, bide ezberdinak hartuta, injustizi batek bahituta, ideiek aldentuta... Baina batez ere, guztiz galtzekotan, izarretarako bidea hartzen dutenean galtzen dira, eta hori ere zer den badakit, bai. Badakit zer den goizero goizero jaiki eta guztia amets gaizto bat izan dela desiatzea, eta goizero goizero errealitate gordinean zaudela konturatzea, eguna izotzezko laban bat bihotzean sartuz hasiko bagenu bezala. Bai, badakit zer den hori. Heriotz bategatik negar egin nuen lehen eta azken aldia 13 urterekin izan zen, eta geroztik ez dut uste negar egin dudarik, ez behintzat jendaurrean, ez zaidalako irteten. Miresten ditut barne barnetik begiak malako biziz betetzen zaizkienak,

adrenalina huste izugarria iruditzen baitzait, baina niri ez zait irteten... Irten arte, hasten naizenean agian ez naiz geratuko.

Urte honen hasieran, oso mina nuen laguntxo bat joan zitzaigun beste mundura. Ez nuen negarrik egin, ezin nuen negarrik egin, badakit dagoen tokian dagoela ere barrez egongo dela. Artistetan artista, jatorretan jator, etsairik gabeko gizon puska, susmatu gabe, denon artean izugarriko admirazioa sortzen zuen gure Joxemuli, haunditan haundi!!! Hitaz gogoratzean irribarrea besterik etzaiak atetzen, ezin diat gaizki, triste, goibel sentitu, ezin diat!! Zenbat abentura pasaitteun gure Ikazteita maitten, apaizakin piriniotan, gure aurreneko maitasunak (hola deitzea bal-

“ Uste dut badakidala lagun maitatuak galtzea zer den, maitatzen duenari beti iristen baitzaio momentu hori ”

din bazeok, behintzat...) aurreneko parrandak, azkenengok, beti gogoratuko haut irribar batekin... Ohore bat izan dek, aixkide!!!

Ezin aipatu gabe utzi ere, “SUA” proiektuko adiskide izan dugun kasta izugarriko Ruso, hau ere santuz jositako traineruren bat entrenatzen ariko da lainozko itsasoan barrera, ieeeeeup!!! Aaaarraa-aaaaaunnnnn!!!

Besarkadarik handiena bien famili guztiari, Ikazteitar, Ibartar, Tolosar, EAL-tar eta gutar guztion partez. Eutsi goiari!!!!

GAI LIBREAN

LASKORAINEN IKASLEEK JARRITAKO BERTSOAK

Gaia: Kazkabarra aisialdi taldea
Kazkabarra da aisialdiko talde interesgarriena monitorea eta gu gabiltz antolatzen ahal dena, inauteriak eta irteerak dantzak prestatzen hurrera lagun arteko giro polita du Kazkabarrak onena.

Kazkabarrakin pozik gabiltza eginez gauza ugari inauteritan bihurtzen gara urte guztitan dantzari. Laugarren mailan argitxoz jantzi beste batzuetan Mari, aurten telebistako pertsonak egongo dira kantari.

Ostegun gizen egunarekin festa handia ikastolan aurten kosakoen desfilea egingo da patioan jo ta ke ari gera guztiok asteartetan lanean guztia ondo ateratzeko azkeneko egunean.

Talde gehiago ere badaude Kazkabarraren antzeko Kirikiño, Eskut, ta Atsedena denak ditugu begiko. Horiek dira ondo pasa ta baita ere jolasteko, Kazkabarra da onena baina denak ditugu gustuko.

Laskorain Ikastola – Tolosa – 6.A

Gaia: Kaixo DBH
LHri agur esateko geroz eta gutxiago DBHn lagun berrik egin edo bestela akabo. Irakasleekin harremanetan egon beharko maizago, baina DBHko onena daudela arlo gehiago.

Hurrengo urtean gela aldaketa izango dugu lehenengo gero asignaturak aldatu eta lan askoz gehiago. Guk hemen espero genuena aldatuko da astero aste batzuk pasa ta ondoren sentituko gera arraro.

DBHra gure pausoa guretzat ezezaguna patioan entzun dugunakin ez da izango biguna klase aldaketak datozelako esan behar aio laguna patioan ikusiko gara hori da pozten gaituma.

Lagun berriak ezagutzeko badaukagu suerte ona ea DBHn tokatzen zaigun irakaslerik onena. Lagun zaharrak izango dira guk daukagu kriston pena, ea ondo pasatzen dugun ta ondo joaten den dena.

Laskorain Ikastola – Tolosa – 6.C



BESTE BEGIRADA BAT

JOXE AGUSTIN ARRIETA

Irakaslea

Garaiotako gai nagusia dugu “Krisia”, “ekonomiak ez duela bihotzik”... Komunikabideak jo eta ke dabilta materia honekin. Guztiak ekonomiaren krisiaz –agian, ekonomiaren danbadaz edota krakatekoaz (?)– jarduten ari dira. Merkatuaren lege libre eta sentimendu gabeak gidatzen du dena...horri gidatzea esan badakioke.

Harritzen nauena beste hau da: ematen du ekonomiaren erantzule ez dela inor; baina guztiontzat legez jarria dago mundu indartsu eta ilun hori. Hemen kontua da ekonomi sistema itsu honek jende asko uzten duela sistematik kanpo. Jendea eta herriak.

Ekonomiak ez du gizatasunaz eta zuzentasunaz ulertzen. Ekonomia neoliberal amorratu honek ez du txiki eta baztertuen alde jokatu. Ekonomiaren legeak dira errudun; dirudienek. Batzuek gero eta gehiago edukiko dute, irabazleek; beste batzuek, berriz, gero eta gutxiago, galtzaileek.

Egiazko solidaritatea bul-tzatzea helburu eta egitasmobikaina da. Ez da makala “gizarte zerbitzuetatik”, “Kari-tas” edo honelako hainbat

antolamendutatik egiten diren ahaleginak, borondate onezko herri ekimenak, hainbat gobernu kanpoko erakunde lan isilak...Ekonomi krisi honetan betikoek ordaindu behar al dute? Batzuk erabaki eta gehienak pairatu? Zergatik egon behar du ekonomiak pertsonen gainetik eta aurretik? Zergatik onartu behar dugu, pertsonen balioa aitortzen ez duen sistema itsu hau? Hau gizalegea al da?

Agian, Charles Chaplin-en “Tiempos Modernos” pelikula hura gogoratu beharko genuke: produzitu, egin, mugitu, etorri, joan, esan, irabazi, gastatu, lehiatu...Hainbeste eginbeharren artean, ez daukagu ezertarako astirik.

Egunak eta gauak erabat hartuak dauzkagu. Ez gara gelditzen. Ez daukagu astirik etxekoekin egoteko. Ez daukagu astirik baratzean patxada ederrean landareak ureztatzeko. Ez daukagu astirik arteaz gozatzeko. Ez daukagu astirik adiskideekin mintzatzeko. Ez dugu hartzen betarik geure barruarekin egoteko. Ez dugu aztertzen zer ari zaigun gertatzen. Esperientziak ez ditugu “bizi”, gertatu egiten zaizkigu gehienek.

Animo! Gainean ditugu

inauteriak, gure Tolosako jaiak...Hartuko dugu atsedeen: agian bakardade eder eta aukeratuan; familiako elkartasun ederrean, gertuko harremanak zainduz; edo adiskidetasun loturak sendotuz; bazter berriak ikusiz edo ez dakit nongo eguzkiaren bizi-indar sustatzailea hartuz; edo liburu egoki batetik jasoz az mezu barne aberasgarria.

Zenbat aldiz utzi gaitu poz sakonagoz mendiko ibilaldi xume batek, diru askoz ordaindutako kapritxo txalotu batek baino! Zenbat aldiz poztu gaitu haur batekin egindako joko edo jolas merke eta gozoak! Zenbat aldiz sentitu dugu barrua pozik hitz-aspertu batean!

Gure herriaren lehenengo eginkizuna suspertzea da, barne-indarrez suspertzea. Hori egiten ez dugun bitartean jai dugu. Euskal Herri barruko harremanak eta elkartasuna sendotu behar ditugu lehenik. Herri egiten ari gara, baina eraikuntza sendotu beharra daukagu. Bestela, ikus zer daukagun hauteskunde atari honetan. Horretarako ezinik eta zailtasunik handienak barnean dauzkagu. Gai-xoaren ezinik handienak ez dira medikuaren zakarkeriek, aldemenekoaren zurrungek

“Ekonomi krisi honetan betikoek ordaindu behar al dute? Batzuk erabaki eta gehienak pairatu? Zergatik egon behar du ekonomiak pertsonen gainetik eta aurretik?”


eta kanpoko zaratek sortuak.

Azkenaldi honetan ezin dut ulertu zer gertatzen den EA barruan. Bestalde ni ere ez nago ados politikaren judizialtasunarekin. Ezin dut onartu hainbeste legez kanporatzea. Baina ANVk eta ETak ulertu behar dute, bortizkeriak, hilketak, lehergailuek sortzen duten gure arteko tirabira eta zatiketa baino txarragorik ez dela ezer.

ETA traba ikaragarria da. Badakit traba gehiago ere badaudela. Uholde bat, harri-jasa bat ere trabak dira. Zer ez berriz krisi ekonomikoa? Baita soberakinak, kutsadura, atzerapena, baliabide-urritasuna, ustelkeria, egitura zaharkituak, administrazio astunegia, elkartasunik eza...Ni behintzat, Lehendakariaren aukerarekin gelditzen naiz, Ibarretxeren plana eta kausarekin. Nahi ditut gizatasunaren aurrerapena eta herrien –gure Euskadiren eta Tolosaren– aurrerapena. ■

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916



IRASTORZA GARRAIOAK



Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxe: 943 671 865

Osakidetzako azken lan-deialdiak euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratu ditu

EUSKARA BESTE BEHIN ERE BAZTERTUTA GERATU DA

Erredakzio Batzordea

Tolosaldeko ez gain, kasu ugari daude EAEn: guztira, lekualdatze lehiaketa bidez, Osakidetzako 1.402 lanpostu beteko dira, eta horietako askotan ez dago bermerik euskaldunoi zerbitzua euskaraz eman ahal izateko.

Egoera horren aurrean, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta UEMAK Osakidetzako azkeneko lan-deialdian euskara beste behin ere baztertuta gelditu dela salatu dute. Bi erakundeek kezka agertu dute herritarren osasungintzan jasaten dituzten hizkuntza eskubideen urraketen inguruan. Jon Bollar UEMAKo lehendakariak nabarmendu duenez, lanpostu aldaketa ugari hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasun data gabe edo 2010eko abendu datarekin atera dira. “Badakigu horrek zer ekarriko duen udalerrri euskaldunetan: erdaldun elebakarrak sartzea osasun zerbitzuetan”. UEMAK

Osakidetzako lan-deialdiak Tolosaldeko anbulatorietan ere izan du eragina. Izan ere, lan deialdiak ez du bermatuko anbulatorietan hasi beharreko langileak euskaldunak izango direnik. Horrenbestez, Tolosaldeko euskaldunek ez dute ziurtatuta medikuek zerbitzua euskaraz emango dutenik, eta dekretuak aukera emango die erdaldun elebakarrei lanpostu horretan aritzeko. Hori gutxienez eskualdeko hiru anbulariotan gertatuko da: Ibarra, Tolosan eta Villabonan.



zera ere badio, Jaurlearitzako Osasun sailak CCOOrekin eta sindikatu atzerakoi eta korporatibistekin hartutako erabakia dela eta osakidetzako eskualde batzuen arduradunek egindako

proposamena ere ez dela onartu.

Paul Bilbao Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendariak ere gogor salatu du lan deialdia: “Gogorarazi behar dugu

2002. urtean milaka lanpostu betetzeko deialdian bakar bati ere ez zitzaiola euskararen eza gutza eskatu, eta merezimen duaren balorazioa hutsaren hurrengoa izan zela. Ondoren euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretua etorri zen, eta 2005ean aipatu dekretuak aurreikusitako Euskara Plana. Horiek izan behar zuten hizkuntza-eskubideak bermatzeko tresnak”, azpimarratu du Behatokiko zuzendariak.

Iñaki Arregi UEMAKo bate-ragileak esan duenez, Osakidetzak hogeitazero atzerapenarekin 2005ean onartu duen euskara planak ez du balio handirik edukiko: “Aurten sartzen den sendagileari 2010eko abenduan euskara maila neur-tzea iruzurra egitea da, izan ere, behin sartuz gero funtzionario hori ez dago hortik mugitzerik. Eta udalerrri euskaldunetako osasun zentroetan langile berriari euskara ez eskatzea euskaldunei burla egitea da”.

Tolosaldeako kasuak www.galtzaundi.com orrian azaltzen dira. ■

antza



Gizonen elkargunea urtarrilaren 14an aurkeztu zen jendaurrean.

Iturria: Noticias de Gipuzkoa

Gizonen Elkargunea, berdintasunaren alde egiteko

TOLOSALDEAN GIZONEN ELKARGUNEA SORTU DA, EMAKUMEENGANAKO DISKRIMINAZIOARI AURRE EGITEKO.

Leire Zubeldia

Estatuko, Euskal Herriko eta Gipuzkoako hainbat hiri eta herrietan bezala, Tolosaldean ere gizonen talde bat sortu da, emakumearenganako diskriminazioari aurre egiteko. “Gizonen elkargunea” bezala aurkeztu zuten euren burua urtarrilaren 14an, Tolosako Kultur Etxean egindako agerraldian. Jendaurreko aurkezpenaren ostean, kultur etxean egon ziren egunero ilunabarreko 20:00etatik 20:30etara, taldera batu nahi zutenei horretarako aukera eskura jarritz. Jose Mari Arakama tolosarra da

Emakumeen aurkako indarkeria era ezberdinak daude gizartean. Ezagunena, zoritxarrez, zuzenean eta erarik bortitzenean ematen dena da. “Emakumearen aurkako indarkeria hau ez da desagertuko, guk, gizonok zerbait egiten ez badugu”. Premia horretatik abiatuta sortu da Tolosaldean Gizonen elkargunea. Gizarteko alor ezberdinetan ematen den emakumeenganako diskriminazioaren gainean, hausnarketa egin, eta honi buruzko eztabaida soziala piztu nahi dute. Helmuga, bakarra da: gizarte parekidea. Tolosan eta Tolosaldean eragin nahi dute horretarako.

gizonen elkarguneko kideetako bat. “Egunero etorri zen baten bat. Une honetan 20 pertsona inguru egongo gara taldean”, azaldu du. Hemendik aurrera ere taldean jende gehiago hartzeko irekita egongo dira. “As-teazkenetan Tolosako Kul-

tur Etxean biltzeko asmoa dugu, beraz, partaide izan nahi duenak guregana jo besterik ez du”.

“GIZONEK ERE ZERBAIT ESAN BEHARKO DUGU BA?”

Gizon sarearen eta beste

herrietan sortutako gizon taldeen berri baldin bazuten ere, Tolosaldeko gizonen elkargunearen iturburua ez da aipatutako taldeen existentzia. Jose Mari Arakamak ondo azaldu bezala, “premia batetik” jaio dira: “Emakumearenganako indarkeria dagoela gauza jakina da. Gainera, gizarteko eremu askotan ematen da indarkeria hori. Gehien eza-gutzen dena, gizonezkoak emakumearen aurka egiten duen biolentzia da; baina honetaz gain, gure kultura eta gizarte egituretan emakumeen aurkako indarkeria dago. Honen aurrean, gizonenezko zerbait egitearen

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

beharra sentitzen dugu. Guk uste dugu, biolentzia mota hori ez dela desagertuko, guk, gizonok, zerbait egin arte”. Zerbait egin behar honek batu ditu elkar-guneko kideak. “Jesus Mari Penillak izan zuen burutzioa. Berak deitu zidan, *zerbait egin beharko dugu bat? esanez*”.

Taldea sortu berria denez, oraindik ez dituzte lan hildoak guztiz zehazturik,

eragin egin nahi dugu”. Esate baterako, hainbat elkar-teetan ematen diren emakumeenganako gutxies-teen aurrean sentsibilizatu nahi dituzte herritarrak. “Ez ditugu hatzarekin salatuko, eztabaida sortu nahi dugu. Guk, jarrera bat berdintasunaren aldekoa den, edo alderantziz, diskriminatzailea den planteatuko dugu”. Nolabait, emakumeenganako indarkeria era guztiak bisualizatu egin nahi dituzte.

Ildo honetatik, berdinta-

nezkoek lehengo jarrera bera izaten jarraitzen dute. Emakumeei aisiarako denbora murriztu egin zaie”.

HAUSMARKETAREN BIDEZ, EZTABAIDA SOZIALA PIZTU

Salaketa hutsean ez dutela geratu nahi diotenean, “salaketa baino eztabaida soziala piztea eraginkorra goa dela” uste dutelako da. “Gure gizartean eta kulturaren, oso barneratuta dugu emakumea bigarren maila-

rean badakite, gizartean hain errotuta dagoen jarrera aldatzea oso zaila izango dela, “baina eztabaida sozialaren bitartez, pixkanaka gauzak aldatzen joango direla espero dugu”.

GIZONTASUNAREN ETA MASKULINITATEAREN KONTZEPTU BERRIAK

“Emakumea jotzen duena ez da gizonagoa. Berdintasuna da gizonago egiten gaituena”. Berdintasun egoera batetik begiratuta landu



Emakumearengako gutxiespen mota guztiak bistaratu nahi dituzte. Kale izendegian esaterako, argi geratzen da gizonen nagusitasuna.

baina nondik tira jakiteko hari-mutur batzuk badituzte. “Batzorde ezberdinak sortzeko asmoa dugu. Horietako batean testuak irakurriko dituzte; beste batean hausnarketari emanak egongo dira, beste batzorde bat komunikabideekin harremanetan jartzeko bidea izango da...”. Gizonen elkarguneak, taldekideengan ez ezik, kanpoan ere eragin nahi du. “Ez dugu salakatea hutsean geratu nahi. Jendea

suneruntz emandako pauso bezala aurkezten diren gertaera faltsuez ere ohartarizi nahi dituzte herritarrak. Alde horretatik, gizonen elkar-guneko kideen ustez, “emakumeak lan munduan integratzeak ez du esan nahi gutxiespen horretatik atera direnik. Emakumeek bigarren lan bat hartu dute; lehendik etxeak eta familiak emandako lana zuen, eta orain kanpokoa ere badute. Eta etxe gehienetan, gizo-

koa dela, gizonaren menpekoea dela. Jarrera hori bistaratu eta eztabaida soziala piztu nahi dugu”. Bizitzako alor guztietan eragina duen jarrera honetaz ohartarazteko hausnarketaren bidea erabiliko dute. “Gure etxean, lanean, elkartean, edo kirol taldean ikusten ditugun jarrerak, emakumeak gutxiesten dituen planteatuko dugu”. Jendeari honen inguruan zer pentsatua ematea da kontua”. Aldi be-

nahi dute maskulinitatearen kontzeptu berria. “Gaur egun, maskulinitatea era batera ulertzen da, eta guk beste maskulinitatearen kontzeptua nahi dugu. Maskulinitatearen definizio berri honetan, egun emakumeak ematen zaizkion zenbait egiteko sartzen dira: umeak hezi eta haztea esate baterako. “Tradizionalki, eta egun ere, egiteko hau emakumearen ardura izan da. Baina gizonetzko ez daki-



“Salatzea baino eraginkorragoa da eztabaida soziala piztea”

gu zer galtzen dugun! Pertsona bezala aberasten gaituen esperientzia bat da. Zergatik egiteko hori baztertu ordutan?”. Egungo “gizonaren” definizioa, gizarteko esparru ezberdinetan hedatuta dagoen seximoa, androzentrismoaren ondorio gisa ulertzen dute gizonen elkargunean. “Mundu mailan pobreziak emakumearen aurpegia du, aginteak gizonetzkoarena. Gizona izan da beti zentroa. Bestela, zergatik da jainkoa gizonetzkoa?”.

GENERO INDARKERIAREN AURREAN ZER?

“Genero indarkeriak gero eta maizago ematen dira” esaldia ahozkatzen hasi orduko moztu du Arakamak.

“Nik ez nuke esango gero eta maizago gertatzen direnik; lehen baino maizago argitaratzen dira; hori da kontua”. Genero indarkeriarik bortitzena, hau da, gizonetzkoak emakumezkoari erazuzenean egiten diona betidanik existitu izan da etxeetan, eta belaunaldiz-belaunaldi igaro da. “Honen aurrean taldetik egin dezakegun gauza bakarra, genero indarkeria kasua gertatu aurretik, eta gertatu ondoren, gure iritzia ematea da, gizonetzkoak jabetu daitezen, horren aurrean zerbait egin dezakegula”.

Puntu honetara iritsita, eztabaida sortu izan duen gaiak galdetu diogu Arakamari: Genero indarkeri kasu baten aurrean zein jarrera hartu behar dugu komuni-

kabideok? “Komunikabideek soilik indarkeria erarik bortitzenen berri ematen duzue. Zergatik ez dituzue kale izendegiak aztertzen? Edo zergatik ez da lan munduan emakumeak bizi duen diskriminazioaz hitz egiten?”. Komunikabideak plangintza sistematikorik gabe lantzen ditugu emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gertaerak. Hedabideek, irakurleak edo eta ikusentzuleak hezteko helburua ere badugula aintzakotzat harturik, aldatu beharreko jarrera iruditzen zaio gizonen elkarguneari.

Gizon talde honen ibilia hasi besterik ez da egin. Asmo ugari dituzte, eta bere unean izango dugu bakoitzaren berri. Emakumeen aurkako indarkeria jorra-

tzen duten talde eta erakundeekin harremanetan jartzeko ideia ere badute. “Gizona izateak ez du esan nahi emakumeen taldeekin ezer jakin nahi ez dugunik”. Gizonen elkarguneak, urtarriaren 22an Bilgune Feministak deitutako kontzentrazioan parte hartu zuen. “Badugu asmoa eurekin lan egiteko”. Emakundera ere jo nahi dute, aholkularitza eske. Gizonduz ekimenarekin ere harremanetan jartzekoak dira, baita Tolosako Udaleko berdintasun sailarekin ere.

Amaitzeko, Jose Mari Arakamak datu esanguratsu baten berri eman nahi izan dio Galtzaundiri. “Taldeen gauden gizonetzkoen batzbesteko adina 50 urtekoa da. Pozik gaude horregatik”. Herrian entzun omen dituzte lehenengo komentarioak. “Guri ordea ez zaigu axola. Uste dugu berdintasunaren alde egiteak gizonago egiten gaituela”. Gizonago izan nahi duen orok du aukera elkarguneko kide izateko. Asteazkenetan, Tolosako Kultur Etxean egingo dituzten bilkuretara azaldu besterik ez da egin behar. Bestela. Galtzaundik berak eman dezake, elkargunearekin harremanetan jartzeko bidea. ■

Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

IBARRA >>> OTSAILAREN 7AN OSPATUKO DEN ELKARTEAREN EGUNA AURREKO ALDIEKIKO EZBERDINA IZANGO DA

Belaunaldien arteko zubia eraikitzen

50 urteak gertu ditu Ibarrako Sendi Ekintzak. Urte guzti horietan, hainbat aldiz gertatu den moduan, belaunaldi berriei lekukoa emateko ordua iritsi zaie elkarteko bazkide beteranoei. Honek hainbat aldaketa ekarriko ditu; batez ere funtzionamenduari dagozkionak. Eli Nosellas, elkarteko lehendakariak eta Luis Lasa zuzendaritzako kideek eman dituzte xehetasunak.

Erredakzioa

Egun, 325 bazkide ditu Ibarrako Sendi Ekintza elkarteak. Azken urteetan ugarituz joan da elkarteko kideen kopurua. Batez ere herriko familia gazteak hurbildu dira San Bartolome plazako lokalera. Honek hainbat aldaketa ekarri ditu: “Lehen, elkartea afaritarako ibiltzen zen. Orain, bazkide gazteek hemen egiten dituzte euren haurren urte-betetzeetako festak; asko dira baita ere, arratsaldea haurrekin hemen pasatzen dutenak”, dio Eli Nosellas Sendi Ekintzako lehendakariak. Familia gazteekin elkarteak beste funtzionamendu bat hartu du. Zuzendaritza batzordea jabetu da horretaz eta lekuko aldaketa egiteko ordua dela erabaki dute. “Guk etapa bat bete dugu elkartean. Lan asko egin dugu gainera; bai ekintzak antolatzen eta baita lehengo bazkideen mentalitateak aldatzen. Hor dago emakumeen gaia. Duela bederatzita urte onartu zen emakumeak bazkide



Sendi Ekintza elkartearen lehenengo haurrentzako krosa antolatu dute elkartearen egunean.

egitea. Orain gazteen txanda da”. Belaunaldi berriari lekua uzteko prest daude, baina trukean, gazteei elkarteko motorra izan daitezten eskatzen diete. Lehendakariak “inplikazio” hitza erabili du. Gaurko zuzendaritza eta bazkide beteranoak ondoan izango dituztela ere azpimarratu du.

ELKARTEAREN FILOSOFIARI EUTSIZ

Sendi Ekintza elkartea eragile garrantzitsua da Ibarran. Hala izan da Frankismo garaian “cabezas de familia” egiturapean sortu zenetik. Lehendakariak dioen bezala, Sendi Ekintza elkarte soziokulturala da. “Herri mailan funtzio asko ditu elkarteak. Hori izan da betidanik bere filosofia eta hala izaten jarraitu behar du”. Elkarteak, pilota eskola eta euskal dantzak bultzatu ditu historikoki. “Horri eutsi egin behar diogu. Baina horrekin batera, ekintza be-

rriak ere antolatu behar ditugu, gazteon beharren arabera”, azaldu du Luis Lasa bazkide gazteak. Ekintza berrien beharraren lehenengo adibidea, otsailaren 7an ospatuko den elkartearen eguna izango da.

ELKARTEAREN EGUNA, GUTZIZ EZBERDINA

Otsailaren 7an ospatuko dute elkartearen eguna. Iaz arte, afari xume batekin ospatzen zuten egun hau. Aurten oso bestelakoa izango da. “Bazkide guztiek parte hartu dezaketen eguna antolatu nahi izan dugu”, azaldu du Lasak. Horrela, haur eta helduentzat, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Jaia, goizeko 11:30etan hasiko da haurrentzako tailerrak eta jolasekin. “Plazan karpa bat jarriko dute eta bertan egingo ditugu ekintza hauek”. Eguerdian, bakoitza bere etxera joango da bazkaltzera, eta arratsaldeko

14:00etan, pilota eskolak erakustaldi txiki bat egingo du udaletxe alboko horman. “Espero dugu eguraldiak laguntzea. Eurria egingo balu, Emeterio Arresera mugituko ginatke”. Pilota partiduak amaitzerakoan zabalduko dute haurrentzako krossean ateratzeko izen ematea. “Kros polita antolatu dugu. Plaza inguruan izango da. Haurrak lau mailatan banatu ditugu, baina denek batera egingo dute korri. Maila bakoitzeko lehenengo neska eta mutil sailkatuentzat sariak egongo dira, eta parte hartzaile guztiek izango dute euren oroi-garrirtoa”. Izerditu ondoren txokolatada izango da. Eta amaitzeko, haurrak eta gurasoak denak batera egon daitezten, lunch eder bat. “Betiko ohiturari jarraituz, txotx-a zabalduko dugu orduan”. Sendi Ekintzako belaunaldi berria hemen da; eta indartsu datorrela dirudi gainera. ■

TOLOSA >>> OTSAILAREN 14AN AHTREN AURKAKO MANIFESTAZIOA EGINGO DA TOLOSAN

AHTri ez esateko hainbat ekintza

Tolosaldeko AHT gelditu! Elkarlanak hainbat ekintza antolatu ditu hilabete honetarako. Abiatura Handiko Trenaren proiektua aurrera doa eta "eskualdearentzat une gogorak" iragami dituzte. Egoerari aurre egin eta beste behin AHT gelditu esateko ekintza ezberdinak antolatu ditu Elkarlanak. Tartean, manifestazioa egingo da otsailaren 14an.

Erredakzioa

AHTrin proiektua aurrera doala eta eskualdearentzat une gogorak datoztela esan zuten Tolosaldeko AHT gelditu! Elkarlaneko kideek hilaren 31an egindako prentsurrekoan. "Legorreta-Alegi-Tolosa zatia egiteko lizitazio-proiektua irekita dago, gero eta gutxiago falta da lanak egiten hasteko, eta bitartean, lurren desjabetze prozesua aurrera doa". Hala ere, elkarlanetik tren lasterraren aurka egindako lana ez dela alferrikakoa izan esan dute, "gu guztion indarrarekin atzeratzen ari da". AHTri ez esaten jarraitzeko hainbat ekintza antolatu dituzte hurrengo egunetarako. Antolatutako programaren bidez, "ozen adierazi nahi dute nola edo hala isilarazi nahi duten kontrako jarrera"

KALTETUEKIN ETA ALKATEEKIN BILERA

Otsailaren bosgarren egunean, Alegiako Kultur Etxean bildu dira Elkarlaneko kideak, lurjabe kaltetuak eta proiektuaren aurkako udaletako alkateak. Lurren desjabetze prozesua aurrera doa. Elkarlanak salatu duenez, "lurjabeen iritziari ez diote kasurik egiten eta lanerako eta bizitzeko behar-beharrezkoa duten lurretan proiektua inposatzen diete". Prozesu horren kontra egiteko, lan talde bat osatu dute kaltetuekin eta proiektuaren aurkako udaletako alkateekin.

BIZIKLETA MARTXA

AHTren aurkako beste ekintza, Tolosaldeko Gazte Asanbladak antolatu du: Otsailaren 7an egingo den bizikleta marxa. Trenak kaltetutako herrietan zehar ibiliko dira arratsaldean zehar. Ondoren, bertso afaria egingo da Anoetan.

BIDEO EMANALDIA

Otsailaren 10ean, Elkarlanak egin duen azkeneko bideoa ikusteko aukera egongo da Amarotzeko Auzo Etxean. Arratsaldeko 19:00etarako jarri dute hitzordua. Ondoren eztabaidarako tarte irekiko dute.

MANIFESTAZIOA TOLOSAN

Ekintza sorta hau eskualde mailako manifestazioarekin itxiko dute. Otsailaren 14an, arratsaldeko 17:00etan irtengo da Tolosako Triangulo plazatik. "Ez gaituzte geldituko - AHT gelditu! Oria Bailara Bizirik - AHTrik Ez!", lemapean egingo dute elkarretaratzea eta ekintza programa bera.

Antolatutako ekintzak aurkezteaz gain, hainbat gertaerei buruzko iritzia emateko baliatu zuen elkarlanak Tolosan emandako prentsurrekoa. "Zenbait

alderdik eta proiektuaren bultzatzaile nagusiak, EAJK, elkarriketaren eta informazioa zabaltzearen aurkako jarrera izan dutela" salatu zuten. Tolosaldeko komunikabideak, (Tolosaldeko Hitzza, Txolarre Irratia, 28 Kanala eta Galtzaundi) AHTri buruz antolatzen ari ziren mahai-inguruan parte hartzeari uko egiteagatik egin dute salaketa. Hildo beretik, "eztabaida ukatzeaz gain, proiektuaren aurka daudenen ahotsa isilarazi eta kriminalizatu nahi dutela" adierazi zuten. Jarrera horren adibide gisa, aurreko hilabetean Urbinan gertatutakoak ekarri zituzten gogora. Amaitzeko, Legorretan, otsailaren 15ean egingo duten herri-galdeketa berri eman zuten, eta bide batez, elkartasuna eta babesa eskaini zieten. ■



ZETA_S_I

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia

kafetegia

Gudari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643

Familia bizitza mitologia klasikoaren bidez



Iñigo Jiménez

Gizakiak historiako hastapenetatik mitoetan sinetsi du; naturaren misterioak azaltzen dituzten ipuin eta alegiatan. Tradizio bakoitzeko zuhaitz mitologikoa hazten joan da milaka urteetan eta esanahi eta istorio sakonak gordezten dituzte sinbologiaren bidez. Gaur egun ere, istorio ezberdinak kontatzen jarraitzen dugu bizi garen mundua ulertzeko saiakeran. Zineak, bideo-jokoak... gaurko jantziekin antzinako mitoak erreproduzitzen dituzte.

Familia bizitza bizi-esperientzia garrantzitsuenetakoa da. Mitoek, familia dinamikak azaltzen dituzte berak dakartzan, poza, tristura eta zailtasunekin. Munduaren sorrerari buruzko mito eta sinbologiaren aterkipean, (ama lurra, zeruko aita) norberak bere mundu emozionala sortzen du, arbasoek utzitako patroï genetiko eta psikologikoen, eta norbanakoaren bizitza esperientzian, ama eta aita figurekin izan duen esperientziaren bidez. Familiako dinamikarengandik eta mitologiatik datozkigun arketipoak amaigabeak badira ere, beti da posible aldagetak jasan edo eta sendatzea, bai gure barnean eta bai gure ingurunean.

Mitologia klasikoak aita-semeen arteko istorio mordoa gordetzen du. Tetis eta Aquiles mitoak, aita bere semearengan jarrita duen esperantzaz hitz egiten digu. Aitak, Tetis-ek anbizio izugarria du bere semea, Aquiles, Jainkoa izan dadin. Greziar istorio honek, itxaropen ezkutuei buruzko intuizioaz hitz

“Munduaren sorrerari buruzko mito eta sinbologiaren aterkipean, (ama lurra, zeruko aita) norberak bere mundu emozionala sortzen du, arbasoek utzitako patroï genetiko eta psikologikoen, eta norbanakoaren bizitza esperientzian, ama eta aita figurekin izan duen esperientziaren bidez.”



egiten du azken batean; aspirazio eta ametsez, inkonszientzian ditugun horietaz.

Hera eta Hefestoren mitoa, Aatetxo itsusiaren antzinako bertsioa da. Aitararen aldeko itxaropena ardatz duen istorioa da hau ere. Kasu honetan, edertasun fisikoa da itxaroten dena, Olinpoko pertsonaien ezaugarria. Familian, ohorezko leku bat lortzea bere dohainen

aitortzak sufrimendu ezjustu bat suposatzen dio.

Orion eta Enopionen mitoa, aita batek bere alaba maitearen jabe izateko egiten dituen saiakerei buruzkoa da. Gizonezko galai batek alaba bere albotik askatzen saiatzen denean sortzen den arazoaz hitz egiten du. Aita eta seme-alaben arteko harremanean, ezkutuan geratzen diren korrontek eta itsutasun emozionala bistaratu nahi dituzte mitoak.

Teseo eta Hipólitoren mitoa berriz, aita-semeen arteko aurkakotasunaz ari da. Aitak bere semearekiko duen jarra-jeloskorra kontatzen du, gaztearen edertasuna, indarra, eta sexualitatearengatik.

Osiris, Isis eta Horusen mito egipziarrak umek irudi berritzaile eta itxaropentsuei buruz hitz egiten digu, zeinak oztupoak gaintzeko adorea eta bakea lortzeko gogoia ematen digun.

Amaitzeko, Ipar Amerikako tribuetatik datorren Poia mitoak dio, familiar-teko maitasunaren transmisioa belaunaldi bateko saltoa eginez ematen dela. Hau da, aiton-amoetatik bilobetara.

Gaurko filme askok ere, familia bizitzari buruzko hainbat irakaspen ematen dituzte. Adibideak asko dira: “La fuerza del carño”, “Kramer contra Kramer”, “Crazy”, “Mi pequeña Miss Sunshine”, “Shine”, “Celebracion”, “Mama cumple cien años”, “American Beauty”, “L,Eolo”, “La ducha”, “Martin Hache”... ■

Beti alai
jateko

Garaian garaiko janariak
eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA

Iñigo Jiménez
Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa

Sta. M^a de la Asunción klinika

Balorazio psikologikoa:
ebaluzioa eta orientazioa
Psicoterapia prozesua

astearte eta ostegunetan, 15:00 - 20:30

ZABALA
DESGUAZEAK

Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04

Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA
Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347



“Antzerkia egiteko kalea ondo pasatzeko lekua da”.

Iñaki Agirrezabal Antzerkia gozatuz

1.728 ANIMALIA KONTU HAUR EMANALDIAREKIN ARI DA HERRIZ HERRI

Felix Aiestaran

Bederatzi urtez kale antzerkian aritzen talde giro bikainean, tartean, besteak beste, Anjel Alkain edo Txan magoa izanik. Egun erdiz Altzagako Udalean lan egin ondoren, Gorringo taldean lan egiteko aukera du, besteak beste haurrentzako istorio berriak antzezteko bilaketan. Oraintxe bertan, 1.728 animalia kontu antzezpenez, umeek aukeratutako hiru zaitan banatutako laminak konbinatzean saio bakoitzean animalia berrien istorioak inprobisatu behar ditu Revillod esploratzailea den Iñaki Agirrezabalek, maistra Bitto-

Iñaki Agirrezabal (Ibarra, 1970) duela zazpi urtetik Betelun bizi da, Malloen begiradapean, eta duela 13 urte antzerkiaren abenturan murgildu zen hanka-paloen gainean. Kale antzerkiari, bere gordintasunean heldu zion. Handik bi urtera gaur egun arte iraun duen Gorringo taldea bihurtuko zen Hanka Gorri antzerki taldean eman zituen lehen urratsak. Hasiera hartan, piraten autobusarekin Euskal Herriko kale ugari zeharkatu zituen, malabarak, hanka-paloak, jolasen antolaketa eta lehen aktore paper ttikiak eginaz.

ri den Ixabel Agirresarobekin batera.

Zein ziren kale antzerkiaren ezaugarriak?

Kaleko saio haietan antzerkia eta jolasa nahastu egiten genuen. Jendea antzerkia ikusten, besterik gabe, ez genuen utzi nahi izaten. Herri

batera joanda, jendea astindu, dantza eta jolas egin arazi nahi izaten genuen. Momentu batean txaranga pasatzen bazen ezin nuen isilik gelditu, ikuslegoari begira: txarangakoei zerbait esan edo zerbait egin beharra zegoen. Piraten pertsonaian sartu eta ikusleentzat bere

herrian agertutako piratak ginen. Umeak mugitu arazten genituen eta ahal bazen gurasoak ere bai. Umeak helduak baino sinzeroagoak dira antzerkian. Umea ikusle modura edo jolasean aspertu egiten bada, joan egiten da. Aktorea berehalaxe jabetzen da umeekin saioa ongi doan edo ez.

Zer da antzerkia egiteko kalea zuretzat?

Antzerkia egiteko kalea ondo pasatzeko lekua da. Orain ez dugu egiten, baina urteetan egin izan dugu eta gozamina da. Donostiako kaian eginiko saio batean pirata modura autobu-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

sean itzuli beharrean, saioa amaitzean itsasontziz joatea inprobisatu genuen. Bidaetan denbora luzea egiten genuen. Hasiara hartan, bederatziren bat lagun baginen eta oso ondo moldatzen ginen gure artean. Hori oso garrantzitsua zen guretzat.

Nolako saioak izaten ziren?

Piratok altxorraren bila moduko jolasean proba desberdinak pasa behar genituen. Autobus barruan, Xanti Anterok ikusleentzat magia saioak egiten zituen. Muki Krossa izeneko saioan, nik hanka-paloeekin barraskilo lasterketa egiten nuen: atzetik erretransmisioa izaten zen eta jendeak

animatu egiten zuen... Pertrikiloak, astronautak... urtero aldatzen genuen gaia.

Nola osatzen zenituzten istorioak?

Hasieran, istorioa baino gehiago jolasa izaten zen ardatz. Jolaserako uneak mantenduz, testu gehiago sartu genuen ondoren. Barru konatak egiten hasi garenean literaturan bilatu ditugu testuak, gero, hauek teatralizatu ahal izateko.

Zein formazio izan duzu antzerkian?

Helena Aranbarrirekin Tolosako Antzerki Tailerrean aritu nintzen hainbat urtez. Malabar, titere eta clown ikastaroak egin nituen. Gauzak kontatzeko gogoaz izateak du garrantzirik handiena.

Urteek eta emanaldiek tenplea ematen dute.

“Kutxidazu Bidea Ixabel” helduentzako antzerki saioarekin Leidor gainezka ikustean zer sentitu zenuen?

Estrenaldia egin eta berehala izan ginen Leidorren. Ez dakit horretara ohitzerik ba ote dagoen. Niretzat antzerkia gozamina da; jendea disfrutatzeke gogoaz joaten bada antzokira eta aktoreak gozatzen badu, guzti hori kutsatu egiten da. Leidorren hori gertatu zen; lotura handia egon zen aktore eta ikuslearen artean.

Nola bizi izan zenuen arrakastaz bustitako aldi hura?

Ederki gozatu nuen. Besteak aktoreak ziren soilik. Baina nik nire lana nuen, eta gaueko hamarretako saiora joan Barakaldora, ordubietan bukatu, eta hurrengo egunean goizeko zazpietan lanera joan behar izaten nuen. Bi urtez aritu ginen Kutxidazu Bidea Ixabel saioa eskaintzen. Formatu ez oso tradizionalen euskal literaturako liburu arrakastatsua egokitu genuen. Estreno bezperan argi teknikariek ari ginenean, hauek esan ziguten kristoren astakeriak esaten ari ginela. Aktoreok ez ginen jabetzen kanpotik zer ikusten zen. Estrenoa Villabonan egin genuenean asmatu genuenaz jabetu ginen. Nola-bait, giltzaren bat ukitu genuen.

Aktore modura tartean izanda Leidor beteta inoiz arituko zinenik amestu al zenuen aurretik?

Inola ere ez; baina niretzat, garrantzitsuena ez zen Leidor betetzea. Ez ditut saioak hartzen Leidor moduko aretoa betetzeko erronkatzat. Ordudanik ez dut areto handitarako antzekizunik egin. Orain, liburutegi modu-

ko areto ttikietarako aritzen naiz. Azkeneko aldian hiru umerentzat egin genuen saioa eta gustura aritu nintzen. Daudenak daudela, saioetan ikusleak gustura daudela sumatzea da helburua. Umeei, antzerki saioa eguneroko bere ingurune naturalera eramane nahi diegu.

Zein izan zen gogoan gelditu zitzaizuen emanaldia?

Zelatungoa izugarria izan zen. Ernioko erromeria erdian Kutxidazu Bidea Ixabel Zelatunen egitea basati xamarra izan zen. Pasaeran zebilen jendeari mendi erdian antzerkia eskaini genion. Espedizio ukitua ere izan zuen, bertaraino tramankulu guztiak eramane behar zirela eta. Errezilera joateko eskatu eta Zelatunera joango ginela erantzun ondoren, bertako alkateak hurrengo urtean bertara joateko esan eta guk agindutakoa bete egin genuen. Jende asko bertaratu zen. Teknikoki zaila zen %90 testua zelako; baina jendeak entzun zuen, barre gogotik egin baitzuen.

Zer moduz Gorringo antzerki taldean?

Lagun koadrila ederra osatzen dugu. Anjel Alkain, Ixabel Agirresarobe, Egoitz Lasa... Talde honetatik kanpo ez naiz aktore lan bila ibiltzen.. Udan ere gehienbat lauok aritzen gara. Kutxidazu Bidea Ixabel antzezlanerako beste aktoreek ere parte hartu zuten. Ondoren ez dugu helduentzako beste antzezlanik egin.

Azal ezazu haurrei eskaintzen diezuen 1.728 animalia kontu emanaldia.

Zazpiren bat urte egin ditugu istorioak kontatzen liburutegietan. Eszenografia ttiki bat sartzen hasi ginen. Ondoren kontakizunak pixka



“Jendea disfrutatzeke gogoaz joaten bada antzokira eta aktoreak gozatu egiten badu, guzti hori kutsatu egiten da”.



“Gustukoak ditugun literatur testuak hartu eta istorio horiek liburutegira antzerkia bihurtuta itzultzea nahi izaten dugu”.

bat teatralizatu egin ditugu. Gustukoak ditugun literatur testuak hartu eta istorio horiek liburutegira antzerkia bihurtuta itzultzea nahi izaten dugu. Horrela, aurten 1.728 animalia kontu antze-lanarekin hasi gara testu literario batean oinarrituta, baina inprobisazioari toki handia eginez. Animalario Universal del Profesor Revillod liburuan oinarrituta dago lana. Hiru paneletan zatitutako hamabi animalien marrazkiak daude, azpian bakoitzaren izena jartzen duelarik. Tximuaren burua, elefantea-

ren gorputza eta txerriaren isatsa duen animalia sor liteke. Halaxe 1.728 konbinazio desberdin ateratzen dira. Oinarria prestatua dugu, baina sortzen diren animalia bakoitzeko istorio bat sortu behar izaten dugu, Ixabel Agirresarobek eta biok. Ez daude bi emanaldi berdin eta gero eta gusturago ari gara.

Nolako harrera izan duzue ume-enganetik?

Ona, oso ona. Martxoan hasi ginen, liburutegi eta herri ttikietan hogeiren bat emanaldi eginaz. Batez ere

Gipuzkoa eta Nafarroa iparraldean mugitzen gara. Ere-mu euskaldunetan, alegia. Kontaketetan gure kaleko euskara erabiltzen dugu. Martxo aldera Amarotzen ahozkotasan jardunaldietan emanaldia egiteko asmoa dugu.

Nork egin ditu laminetako marrazkiak?

Nire arreba Sorkundek egin ditu. Denak ez dira liburuan agertzen diren animalia berberak; beste batzuk ere sartu ditu.

Antzerkirako garai onak al dira hauek?

Antzerkirako beti dira garai onak. Antzerkia eta kontzertuen moduko zuzeneko emanaldietara jende gehiago joango da, ikuslearen aurrean zuzenean gertatzen den ikuskizuna delako. Zuzeneko emanaldi berdinek ez dago, eta bestetik aktorea zuzenean ikusteak jendea erakarri egiten du.

Euskal antzerkiak ba al du babesik?

Kutxidazu Bidea Ixabel egin genuenean ikuslearen babesa jaso genuen. Laguntza publikoa baduen edo behar duen, ez dakit. Antzerkiak azpiegitura hobekia behar ditu eta horrekin ez dut esaten areto handi dotoreak behar direnik. Antzerkia programatzen dutenek, antzerki formatu ttikientzat ere gune egokiak bilatu beharko lituzkete. Administrazioak emanaldiak berezko tokietan

“Antzerkiak azpiegitura hobekia behar ditu eta horrekin ez dut esaten areto handi dotoreak behar direnik. Antzerkia programatzen dutenek, antzerki formatu ttikientzat ere gune egokiak bilatu beharko lituzkete.”

emateko malgutasun hori izan beharko luke. Dauden egiturak antzerkirako ere egokiak izateko egokitu beharko lituzkete.

Tolosako antzerkiak mintza zaitetz...

Amarotz, Asvinenea... jendeak lan handia egiten du. Zaletasunagatik urte osoan saio baterako lanean aritzen denak meritu handia du. Ez dut kritika modura esan nahi, baina Tolosan antzerkia egiten dutenek, gehienbat, erdaraz egiten dute.

Zein asmo dituzue?

Helduentzat zerbait presatu nahi dugu, baina ez dugu testurik bilatzen. Oraindik ez dugu ezer lotuta. Taldeko gehienak telebistan ari dira eta ez dugu denbora gehiegirik ere. Jendeak telebistan agertzen diren aktore horiek ikusteko gogoia badu, baina horrek ez dut uste antzerkirako zaletasuna sortzen duenik. Teatroaren hizkuntza ezagutzearen oinarriak finkatuko du antzerkia. ■


CDI
Informatika
 Osagaiak
 Desarrolloak
 Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
 TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916


COMERCIAL
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
 Iparragirre auzoa, 1-behea
 20400 Tolosa
 Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462


Mertzeria eta
konponketak
 Zumalakarregi etorbidea, 7
 TOLOSA


 Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

TXOLARRE IRRATIA >>> TXOLARRE IRRATIA GIZARATERATZEKO KABITIK PLAZARA EKIMENA ANTOLATU DUTE.

Txolarrea kabitik plazara dator

Txolarre Irratia kokortzen ari da. Abenduan zortzi urte bete zituen. Zortzi urte uhinean, euskarazko ahaleginetan, eskualdetik euskaldearentzat lanean. Bada, iritsi zaio kabitik irteteko unea. Txolarrea ikusten utziko da hemendik aurrea. Kabitik plazara dator, eta bertan geratzeko asmoa du gainera.

Erredakzioa

Zortzi urte haue-
tan kabitik egin
du lan Txolarre
Irratiak. Gogor
aritu da egune-
roko jardun aldapatsuan. Bi-
de horretan, lagunak eta ent-
zuleak batzen joan dira es-
kualdeko euskarazko irrati-
ra: Saio libreak egin dituzten
lagunak ehundik gertu dau-
de; aldiz, kontaezinak dira
mikrofono aurretik igaro
diren pertsona guz-
tiak. Jon

Mirandaren ahotsa, makina bat sukaldeetara sartu da. Galtzaundik elkarrizketatu-
ren paperean jarri du: “Hel-
buru guzti hauek lortu ditu
irratia. Baina ohartu gara
Txolarre Irratiak ez duela
bere sorrerako urteetan izan
zuen presentzia sozialik;
Txolarre ez dela kalean
ikusten. Irrati uhinak, jende
uholde bihurtu behar ditu-
gu, Txolarre gizartean ikus-
tarazi. Irratiak gure etxeetan
duen presentzia, plazara
ekarri”, azaldu du Miran-
dak. Hain zuzen ere, horre-
tara dator ondorengo erre-
portaian aurkezten zaigun
Kabitik Plazara ekimena.

PLAZARA BERTSOZ, KANTUZ ETA IZERDITZEN

Irratia gizarateratzeko, ka-
lean egoteko, modurik era-
ginkorra ekintza ezberdi-
nak antolatzea zela iruditu
zitzaien Txolarre Irratiko la-
gunei. Zortzigarren urteu-
tiak.

rrenarekin batera hasi ziren
burua astintzen. “Segituan
pentsatu genuen, urte haue-
tan egindako lagunak lagun-
tzarekin egin behar genuela
plazarako bide hori”. Beste
hainbaten artean, bertsolari-
ak, kantuzaleak eta herri
kirolariak dira Txolarre Irra-
tiaren lagunak. “Txolarre
sortu zenetik, asteazkenero
bertsolaritzari buruzko saio
labur bat egiten da. Herri
Kirolaren munduan gerta-
tzen denaren berri, Joxe An-
jel Sarasolak ematen digu
astero. Eta euskal kantu txap-
elketei ere jarraipena egite-
ko ohitura dugu irrati-
an, Euskal Kantuzale elkarteko-
ak lagun ditugularik”. Ho-
nenbestez, bertsoak, herri
kirolak eta kantuak osatuko
dute Kabitik plazara ekime-
naren menua.


OTSAILTIK MAIATZERA

Kabitik plazara ekimena
prestatzeko kontutan hartu
duten beste irizpidea eskual-
detasuna da. Era
honetan, es-
kualdeko he-
rri ezberdi-
netan saiatu
dira ekin-
tzak antola-
tzen. “Ber-
tso afari edo
eta kantu baz-
kariak antolatzeko
herrietako elkartee-
tara jo dugu, iruditzen
baizitzaigun herritarren-
gandik gertuen dauden le-
kuak direla”.

Lehenengo ekitaldia otsai-
laren 14an izango da Zizurki
goiko zentroan. Bertan, *Ber-
tsoa 09+* bertso saio berezia
eskainiko dute Iñaki Gurr-

*“Irrati uhinak,
jende uholde
bihurtu behar di-
tugu, Txolarre gi-
zartean ikustara-
zi. Irratiak gure
etxeetan duen
presentzia, plaza-
ra ekarri”*

txaga, Amaia Agirre, Uxue
Alberdi, Jon Muñoa eta Ai-
tzol Barandiaranek. Afarira-
ko txartelak salgai daude da-
goeneko Zizurkilgo Aurrera
tabernan eta zentroan ber-
tan. Hurrengo ekintza mar-
txoaren 14an izango da. Ale-
giako Bertso Eskolarekin el-
karlanean beste bertso baz-
kari bat antolatu dute. Ber-
tan Aitor Mendiluze eta Iker
Zubeldia arituko dira. Ale-
giako bertso bazkariaren biha-
ramunean, herri kirol jaialdi
bikaina egingo da Asteasuko
frontoian *Helduak eta gaz-
tea, eten ez den katea* izenbu-
ruean. Batetik, Joxe Men-
dizabal 62 urteko aizkolari
adunarrak, Anjel Arrospide-
ren laguntzarekin 3 metroko
diametroa duen enbortzara
ebakiko du. Bestetik, Urdax
Magunazelaia 11 urteko
mutiko abadiñotarrak marka
ahalegina egingo du 105 ki-
loko harriarekin. Bien bitar-
tean, iparraldeko jokoak
izango dira. Apirilaren 4an
egingo da hirugarren bertso
afaria. Kasu honetan Tolosa-
ko Iurre elkartean, Anjel
Mari Peñagarikano, Bixente
Gorostidi eta Jexux Mari
Irazu gonbidatu dituzte.
Kantu afari eta bazkariak
berriaz, azkenerako utzi di-
tuzte. Apirilaren 25ean Be-
rastegiko Urepel elkartean




OTSAILTIK MAIATZERA ARTEAN EGINGO DA

izango da lehen kantu bazkaria; eta bigarrena Ibarren egingo da, maiatzaren 9an. Bi herri hauetan dituzten abeslari finak jarriko dituzte kantuan.

PLAZAN GERATUKO DA INDARRAK BATZEKO

Behin plazara iritsita bertan geratzeko asmoa du Txolarrek. Izan ere, 2010. urtean eskualdeko euskarazko irratia hamar urte bete-ko ditu. “Hamargarren urteurrenera arteko bidea, Txolarre eta bere komunikazio eredu bera duten beste herri komunikabideen inguruan indarrak metatzeko baliatu nahi dugu”. Eskualdeko irratia oinarria herri ekimena da. “Herritarrek sortu zuten eta herritarrek izan dira Txolarre zortzi urte hauetan bizirik mantendu dutenak”. Izan ere, Mirandaren hitzetan, Txolarre Irratiak ez du bide xamurra izan. “Proiektu independentea da, ez baitu jaso inongo enpresaren babesik ez eta erakunde nagusien laguntzarik ere”. Era honetan ez da erraza komunikabide bat aurrera ateratzea. Horregatik dio Txolarre Irratiko esatariak, komunikazio eredu honen inguruan indarrak batu behar direla.

“Gaur egun komunikabi-



de nagusiak, kontsumorako produktu bihurtu dira. Herritarren parte hartzea erabat pasiboa da. Txolarre soka horren beste muturrean dago. Mundu guztiarentzat zabalik dagoen irratia da; horrek noski, konpromiso handiago eskatzen die herritarrei eta eskualdeko eragileei; parte hartze aktibo hori, akaso, ez da hain eroso. Baina, guk komunikazioa elkarrekintza bezala ulertzen dugu, eta denon artean egindako ahaleginak ematen dituen fruituak merezi du”.

Zortzi urte hauetan Txolarre Irratiak eman duen zerbitzua, funtsean, eskualdeari euskaraz informazioa ematea izan da. Baina honez gain, beste hainbat zerbitzu ere bete ditu. Eragile as-

koren aholkularia izan da; kuñak grabatu izan ditu, batentzat eta bestearentzat; herrietan antolatutako ekitaldietan aurkezpen lanak egin dituzte; eta kazetari gazteentzat eskola bat izan da. “Zerbitzu guzti horiek dohainik egin ditu Txolarrek, uste dugulako gure eginbeharra ere badela aipatutako guzti hori”. Elkarlan edo elkartruke bezala ulertzen dute hori Anotetan kokaturik dagoen irratian. “Orain jaso dugu egin dako lanaren esker ona. Kabitik plazara ekimena antolatzeko laguntza eske joan garen lekuetan beso zabalik hartu baikaituzte”.

Kabitik plazara dator Txolarrea, eta esan bezala bertan geratzeko asmoa du. “Ekimen hau hasiera besterik ez da”, ohartarazi dute. 10. urteurrenera iri-

“ Txolarre Irratia, eta bera bezalako herri komunikabideak duindu nahi ditugu. Euren esparru komunikatiboko erreferenteak izan behar dute. Eskualdetik egiten delako eskualdearentzat”

tsi artean, hainbat ezusteko emango baititu eskualdeko euskarazko irratia. “Bide horretan, Txolarre Irratia, eta bera bezalako herri komunikabideak duindu nahi ditugu. Euren esparru komunikatiboko erreferenteak izan behar dute. Eskualdetik egiten delako eskualdearentzat”. Adi Txolarreari!

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

**ARTE
TAILERRA**

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana; marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosa - Kale Nagusia, 16 - Tlf. 677 340 685

1. Saria. Bidaide bidai agentzian, gau bat bi lagunentzako landa-turismoko etxe batean. Iñaki Olaetxea Amonarriz
2. Saria. Mahala esnekiak produktuen, urdaiazpiko paleta bat eta gazta bat. Oihana Sanchez Artieda
3. Saria. Aralar kirolak dendan, forro polar bat. Juantxo Pagola Letamendia

bai euskarari

galtzaundi

Harremanetan jartzeko, Galtzaundiko egoitzara gerturatu edo 943 655 004 telefonora deitu

Lan talde bikaina

GETARIAN IRABAZI ONDOREN ZUMAIAKO ZALDI LASTERKETAN

Leire Zubeldia

Pol eta Kats zaldiak aipatze hutsarekin begiak dir-dir jartzen zaizkio Iñaki Garmendia orendaindarrari. “Pol, anaiak oparitu zidan. Irlandatik ekarri zuen; Poloan (hockey-a zaldi gainean) ibilitako zaldia da, horregatik oso entrenatua dago kurbak hartu eta frenatzen. Oso zaldi ona da; zintzo egiten du esana”. Oso maitea du zaldi hau Iñakik. Zazpi lasterketa egin ditu berarekin, eta horietatik bost, irabazi egin ditu. Kats zaldi odolgarbia duela bi hilabete ekarri zuen. “Probak egiten ari naiz berarekin, elkar ondo ezagutzeko. Pixkanaka hobetzen ari da. Izugarri gustatzen zait zaldiak hobetze bidean egiten duen bide hori ikustea. Kats egiten ari den eboluzio-rekin gozatzen ari naiz. Oso

Zaldi lasterketan talde lana funtsezkoa da. “Zaldiak azkarra eta egonkorra izan behar du, bai. Baina ezinbestekoa da gainean doanak azpikoa ezagutzea, eta alderantziz”. Alde horretatik, Iñaki Garmendia zaldi lasterkari orendaindarrak, eta bere zaldiek, lan talde bikaina osatzen dute. San Anton egunean Getarian jokatu zen lasterketan lehen postuan helmugaratu zen Iñaki eta Pol-ek osatutako taldea; Hirugarren sailkatu ziren berri, Isabel Landa donostiarra eta Kats, Orendaingoaren zaldi odolgarbia.

gustura nago berarekin”.

Pol eta Kats-en aurretik beste zaldi batzuk izan ditu Iñakik. Betidanik gustatu izan zaizkio zaldiak eta hauen gainean ibiltzeko ohitura ere aspaldikoa da orendaindarrarentzat. Baina bere lehen zaldia duela sei urte erosi zuen: Aran zuen izena. “Zaldi lasterketak ikustera joaten nintzen eta pentsatzen nuen, *ni ere ibiliko nintzateke ba!* Araneekin gustura ibiltzen nintzen etxean, eta lan ona egin zeza keela pentsatuz proba egin nuen”. Orioko ondartzan antolatu zuten lasterketa izan zen Iñaki eta Araneekin egin zuten lehena. Gauzak ez zitzaizkien espero be-

zala atera. “Zaldia ez zen bature ibiltzen: nik ere ez nuen esperientziarik”. Getaria eta Donostiako lasterketan ere egin zuen froga. “Donostiakoa igande batean jokatu zen. Biharamunean zaldi berria ekarri nuen: Las de Press, odolgarbi amerikarra. Orion estreinatu nuen zaldia, eta irabazi egin genuen”. Lau urte igaro dira ordutik eta Iñaki Garmendia eta bere zaldiek garaipen ugari lortu dituzte: 2008an, Gernikan, Bidanian, Orendainen eta Getarian lortu zituzten garaipenak. Zizurkilen, Aian eta Elgoibarren bigarren egin zuten. Urtean hamabost lasterketa inguru egiten dituela kontutan hartuta,

ez da batazbesteko txarra.

ZALDIA ETA PERTSONA, LAGUNAK

Lasterketaren buruan joateko, zaldiak, azkarra, irteera onekoa eta egonkorra izan behar du. Baina aberearen ezaugarriez gain, ezinbestekoa da zaldiak eta pertsonak elkar ezagutzea. “Nik jakin behar dut behetia nola dagoen, bere indarrak banatzeko. Eta alderantziz ere bai: zaldiak gainekoa ezagutu behar du; bere ahotsa, agindua emateko modua...”. Zaldia eta pertsonaren arteko harremanak duen garrantzia jabetzeko, adibide bat jarri du Garmendiak: “Nik pisu han-



Nicasio Garmendia eta Iñaki Garmendia anaiak Kats eta Pol zaldiekin.

IKUSIKO DITUGU IÑAKI GARMENDIA ETA POL, BERE ZALDIA

dia dut, eta hala ere, Pol aurrean ibiltzen da beti. Pentsatu genuen, ganean pertsona arin bat jarriz gero, nahi bezala irabazi zezakeela. Proba egiteko, 54 kilo pisatzen zituen ginete bati utzi genion zaldia. Ba ez zuen ezertxo ere egin. Zaldia konturatu egin zen ganean zeraman hori ez zela beti berarekin ibiltzen den pertsona”.

Iñaki egunero-egunero ibiltzen da zaldiekin. “Ordu laurden bada ere, egunero egin behar duzu bueltatxo bat”. Anaiak, Nikasio Garmendiak aholkatzen dio nola prestatu zaldia. “Berak esaten dit, egun bakoitzean zer egin be-

har dudan zaldiekin: paseotxo lasai bat eman, serieak egin...”. Nikasio arraunlaria izan zen eta kirolarietara jartzen zaien entrenamendu bera aplikatzen die zaldiei. “Ez dakit zuzena izango ote den, baina oraingoz ondo doakigu behintzat” dio. Zaldia ondo prestatzea eta ondo elikatzea da Iñaki eta Nikasiok darabilten estrategia.

ZALETASUN GARESTIA

Ganean ibili, dutxatu, jana eman, ondo dauden erreparatu... Egunean pare bat ordu eskaintzen die Garmendiak zaldiei. Denbora eta lanaz gain ordea, dirua ere eskatzen

du zaletasun honek. “Zaletasun garestia da. Janaria, albaitaria, perratzaileak, kotxeko erremolkea... Guzti horrek asko balio du eta lasterketetan irabazi ditzakezun sariek ez dituzte zulo horiek estaltzen”. Argi eta garbi, zaldi lasterketaria izatea galera da diru aldetik. “Baina nik ezingo nuke hori gabe bizi”, dio Garmendiak. Eta berak bezala baita gainontzeko lasterketariak ere. Gero eta zaldi lasterketa gehiago antolatzen dira eta parte hartzaileak ere ugartzen doaz. “Iaz, Getariako lasterketan 12 perta hartzaile ginen; aurten 21 izan gara. Herri txikietako lasterketetan

ere 8 zaldi osatu ezinik ibiltzen ginen, eta Orendainen antolatu genuen azken edizioan 16 lagunek hartu genuen parte”. Emakumezkoak ere animatzen ari dira. Gainera, gizonezkoekin batera egiten dute lasterka. “Batzuei beldurra ematen diote zaldi lasterketetan ateratzeak, hartzen duzun altuera eta abiadura-rengatik. Baina nik animatu egingo nituzke, eta batez ere neskak”. Berak behintzat puska batean zaldi ganean ikusten du bere burua. Iñaki, Pol eta Kats-ek talde bikaina osatzen baitute, eta orendainarrak talde giroan gozatu egiten baitu. ■

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Telefonoa: 943651063
Webgunea: www.samanlego-tolosa.com
Posta elektronikoa: 012244oa@hezkuntza.net

- HAUR HEZKUNTZA (2 URTETIK HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA



07:30etik
aurrera



Telefonoa: 943651387
Webgunea: www.orxe.net
Posta elektronikoa: 012780oa@hezkuntza.net

- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATAILERGOAK

D EREDUA - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**MATRIKULA EPEA:****OTSAILAREN 2tik 13ra**

Otsailaren 6tik 20ra bitarteko hitzorduak

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

» Otsailaren 14ra arte: Juan Jose Aguirre-ren erakusketa.

ALEGIAKO JUBILATUEN TABERNA

» Otsailaren 8ra arte: Marce Tenaren begiei buruzko margolanen erakusketa. Zabalik asteartetik igandera.

HITZALDIAK

TOLOSAKO KULTUR ETXEA

» Otsailak 5etik aurrera: Tolosari buruzko historia apunteak. Kultxa aulak antolatutako hitzaldi sorta. Ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara.



AMAROTZEKO AUZO ETXEA

» Otsailak 13: Juan Bautista Aranzabe "Matek" hitzaldia eskainiko du Tolosako Inauteriei buruz, 20:00etan.

Z I N E A

LEIDOR

» Otsailak 6: My blueberry nights 22:30ean.

» Otsailak 8: Perez sagutxoa 2, haurrentzako filma 17:00etan. Una familia con clase 19:30ean. Myblueberrynights 22:00etan.

» Otsailak 9: My blueberry nights 20:30ean.

» Otsailak 13: 7 almas, 22:30ean.



» Otsailak 15: El valiente despereaux, haurrentzako filma 17:00etan. 7 almas, 19:30ean eta 22:00etan.

» Otsailak 16: 7 almas 20:30etan.

ZINE FORUM

LEIDOR

» Otsailak 12: La comedia de la vida, 19:15ean eta 21:45ean.

» Otsailak 26: Las horas del verano, 19:15ean eta 21:45ean.

IKUSKIZUNAK

LEIDOR

» Otsailak 7: Erregea eta bufoia, bertso eta antzerki ikuskizuna Korrika Kulturaren baitan. 22:00etan.

» Otsailak 14: Aiz Orratz/veleta elkarteak antolatutako Iñauterietako haurren jaialdia 16:30ean.

» Otsailak 20: Arpegi taldearen Ostiral meheko jaialdia, 22:45ean.



M U S I K A

» Otsailak 13: Udal Musika Eskolaren kaldero kontzertua 19:30ean.

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak (bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea · TOLOSA
Tel.: 943 652 618

kutxa

ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

U Z T U R P E IKASTOLAKO KULTUR ASTEA

»» Otsailak 6: Emeterio Arrese plazako eraikinaren inaugurazioa. Ordua: 19:00.



»» Otsailak 8: Zeraingo meategietara irteera. Goizeko 9:00etan plazatik irtengo dira.

IKASTAROKAK OARGI MENDI ELKARTEA

»» Otsailaren 6tik 8ra: Oinarritzko alpinismo ikastaroa. Lizara/Belaguan.

»» Otsailaren 12 eta 14: Orientazio ikastaroa. Iparrorratza, altimetroakm mapak eta kartografia eta dometoren inguruko irakaspen praktikoa eta teorikoa.



Farmazia saltzen da, Ibarako
eremu farmazeutikoan

Deitu telf. honetara: 625702415

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Ikastaroak

Odontologiako laguntzailea	Otsaila	30 ordu
Zeinu hizkuntza 1, 2, 3	Otsaila	40 ordu
Adimen urriko pertsonekin lan egiteko estrategiak	Otsaila	40 ordu
Fresadora konbentzionalaren mekanizatzea	2009.03.02	36 ordu
CAD 3D Modelatu eta Planoak (Solid Edge)	2009.03.02	80 ordu
Automatismo programariak	2009.03.02	35 ordu
Aire-girotuko instalazioen muntaia	2009.03.02	40 ordu
Nominak eta Gizarte Segurantzaren eragiketa informatizatuak	2009.03.09	30 ordu

Ikastaro hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota bestelako ikastaroen informazioa interesatu izanez gero, jar zaitez harremanetan:
Webgunea: www.ikastn.com
Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: Tolosaldea GMLH Institutua, Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa
Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com

www.ikastn.com

Guardiako farmaziak OTSAILA

Ostirala, 6 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
Larunbata, 7 Ugarte M ^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
Igandea, 8 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 9 Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
Astearte, 10 Iturriz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
Asteazkena, 11 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Osteguna, 12 Morant R. (Zabalaretza, 1) Tolosa
Ostirala, 13 Olarreaga J. (korreo kalea, 2) Tolosa
Larunbata, 14 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
Igandea, 15 Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
Astelehena, 16 Olarreaga M. (Marin J. Iraola, 10) Tolosa
Astearte, 17 Echeveste, J.M. (Gemikako arb. 3) Tolosa
Asteazkena, 18 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Osteguna, 19 Ugarte M ^a Teresa (Euskal Herria, 46) Ibarra
Ostirala, 20 Morant R. (Zabalaretza, 1) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albizar Osasun zentroa	943 653 212
Alto Medikua	943 654 737
Anoeta-Aikiza-Hernalde Medikua	943 652 339
Baliarrain Medikua	943 889 003 (asteazk.)
Berastegi-Elduain Medikua	943 683 361
Bidegoian Medikua	943 681 134
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu Osasun etxea	943 672 411
Ikaztegieta Medikua	943 653 329
Irura Osasun zentroa	943 690 720
Tolosa Anbulatorioa, lamiadiak	943 650 931
San Esteban, hitzordua	943 006 800
Gemikako Arbola, hitzor	943 006 900
Amarozko dispensarioa	943 672 637
Asuntzio Kimika (lamiadiak)	943 675 799
San Kosme San Damian	943 675 390
genitrikua	943 672 932
Udaltzaingoa	943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Ur zerbitzuak (abentak)	639 352 156
lurreamendi egoitza	943 670 325
Lamiadiak, Suhiltzaileak	112
DYA	943 672 536
Gurutze Gorria	943 674 888
Ertzaintza	943 651 425
Tolosa Gasa	943 673 022
Lizartza Medikua	943 682 077
Orendain Medikua	943 655 595
Orexa Medikua	943 682 228



Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

Muxu-truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- **Adineko pertsonak** edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**
- **Hortz protesikoa** eskaintzen da laborategian edo auxiliar lanetan aritzeko. **671 44 66 15**

ETXEBIZITZA

- **Etxebizitza salgai** izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikaslekin bila dabil. 627834993.
- **Garaje bat** alokatzen da Anoetako San Juan kalean.

SALGAI

- **Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipe 18.000 euro. **629 52 51 50**.
- **Kotxe bat salgai** Matrikula: 8351 JX. Prezioa: 961 euro. **617 863 669**.
- **Artzai txakurra salgai** 617 863 669
- **Spaniel txakur kumea salgai** 678 923 512
- **Lander trakorea (32 zaldi) eta Renaul Kangoo (60.000 km)** salgai 617 863 669

HOROSKOPOA

OTSAILAREN 6TIK 20RA ARTEKO AURREIKUSPENA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Lanak esperientzia berri bat bizitzeko aukera ekarriko dizu hilabete honetan. Atera ahalik eta zuku gehien, baliogarria eginbo baitzaizu. Bestalde, ez zenituzke gauzak hain estu hartu behar.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Nahiz eta zurekin ados ez dauden, zuzen zabilta. Denborak arrazoi emango dizu eta orduan jasoko duzu inguruko en aitortpena. Erlaxatuko zaituen ekin-tzaren bat bilatu beharko zenuke.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Aspaldiko partez, pasioz betetako unek igaroko dituzu zure bikotekidearekin. Etxean zure laguntza beharko dute, familiako kideren baten osasun arazoak direla eta.



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Gauzak zuk uste baino sinpleagoak dira. Zure jamerak zaildu egiten du edozein ekintza, baita jendartzeko harremanak ere. Kontuz: zure barkamena garesti dago eta agian ez dago prest horrenbeste ordaintzeko.



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Arazo potolo xamar bat izango duzu hila-bete honetan. Hau ondo kudeatzeko beharrezkoak dituzu pazientzia eta lasaitasuna. Medikura bisitaren bat edo beste egin beharko duzu.



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Azken egunetan sentitzen duzun nekearen jatorria elikadura txarra izan daiteke. Onartzen ez badu ere jelskor dago. Motiborik ez duela erakutsi behar diozu, arazoa benetazkoa bilakatu baino lehen.



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Ez zaituz fidatu. Kanpotik itxura polita du, baina barrutik ustelduta egon daiteke. Inoiz baino zorrotzago eduki behar duzu zure zentzu kritikoa. Kafe dosia jaitsi beharko zenuke.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Ez hasi beste lan batekin aurrekoa amaitu baino lehen. Egunen batean bentean itoko zara. Barre egitea komeni zaizu, barneko korapilo guztiak askatzeko.



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Zaren bezala onartzen ez bazaitu, pertsona horrek ez du merezi. Hausnartu ezazu, eta erabaki ea berak merezi ote duen. Atzera edo aurrera egin, lehenbailehen erabaki behar duzu.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtharrilak 20

Une latzak datoz etxera ekonomiaren aldetik. Diru iturri berri bat aurkitu beharrean egongo zara. Laguntzeko prest dauden pertsonak badituzu inguruan. Topa itzazu.



AQUARIUS

Urtharrilak 21 – Otsailak 20

Hurrengo egunak oso lasaiak izango dira zuretzat. Aspaldian zahutu dituzun indarrak berreskuratu eta atseden hartzeko bidea emango dizu. Etorbizunaz pentsatzeko une egokia izan daiteke.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Gauza bat pentsatu eta bestea esan. Kontraesanetik kontraesanera zabilta eta horrek asko estutzen zaitu. Zure ideiekin leial izaten ikasi beharko zenuke. Askoz ere hobeto sentituko zara.



INAUTERIAK 2009



Elbarrena industrialdea 72-1 - Telf: 943 888232 - jaiak@jaiakdenda.com - www.jaiakdenda.com ZALDIBIA
Plaza Majori 12 (beste dendatik km 1-era Zaldibiako errepidean) - Telf: 943 888324 - ORDIZIA

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



2016
urtea

Ibarraldean kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen



uzturpe

herrian hazi eta hezi

- > Gurasoen parte hartze zuzena.
- > Orientazio psikopedagogikoa.
- > Bizikidetzeta plana.
- > Talde txikiak (15 ikasle).
- > Bertako herremana.
- > Psikomotrizitate gela.
- > Bertan eta bertako produktuekin prestatutako bazkariak.
- > Autobusa doan
- > Aiton amonen eskola/guraso eskola.
- > Mendi taldea.

ikastetxe bat baino gehiago

uzturpe

bi urteko gela
ludoteka
ikastola

matrikulazio epea otsailaren 2tik 13ra

dei lezaguzu eta bisita antolatuko dugu

